

Prest!



BERBETAN: **SILVIA RODRIGO** STOP TALA DEUSTOKO KIDEA

ERREPORTAJEA: **BERTSOAK BADU TOKIA DEUSTUN** BARKUA: **DEUSTUK ERE BADU BERE ASTE NAGUSIA**

01-252-253-254-255



Sustatzailea



Babesleak



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukariaren erantzule bakarra



Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

- Izen-abizenak
- Helbidea
- Telefonoa
- E-posta
- Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

	Jon Zubieta - Itsaso Larramendi Elexgaray		Iritzia	4
	Aaron Barcina		Gureak kanpoan	5
e	erreportajea Bertsoak badu tokia Deustun <i>2011tik darama Elorri Bertso Eskolak Deustun bertsozaletasunari txoko bat egiten. Ikastola eta institutuko ikasleentzat eskolaz kanpoko eskaintza gisa sortua, eskolatik kanpo ere bertsoan aritu nahi zutenek aukera izan zezaten jarri zuten abian ikastolako hainbat gurasok Deustuko Bertso Eskola, Elorri izenez ere ezaguna. Elorriin hasi ziren bertsoariaren lehen belaunaldietakoak dira Enare Muniategi, Mikel Aiartzaguena eta Ander Anakabe, besteak beste; azken honekin elkartu gara Elorri eta bertsoak Deustun duen tokiaz mintzatzeko.</i>			6
	San Inazio Ikastetxea		Eskolak	10
	Doneperriagako Maiora, dorretzeko andrea (I)		Behin batean	12
	Korrikaren kronika		Artikulua	14
b	berbetan SILVIA RODRIGOREKIN <i>Natura eta ingurunea oso presente izan ditu beti Silvia Rodrigok. Aurreko udan, Lehendakari Agirre etorbideko 128 zumarren mozketak STOP TALA Deustoren sorrera eta hainbat eta hainbat manifestazio zein elkarretanatzeko eragin zituen.</i>			16
	Puente de Euskalduna (1996)		Irudiak berbetan	21
	KULTURA Martxoarena. Herri bizi bat, herri handi bat			 harkua bete herba
	JAI HERRIKOIAK Deustuk ere badu bere Aste Nagusia			
	KULTUR TXOTX Patri Muñoz, Kattalin Urriz eta Elise Gomez			

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Nerea Cubillo Urkizu

Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Jone Gartzia, Borja Sarrionandia-Ibarra, Andoni Lopez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Ane Rotaetxe, Iker Basabe, Maider Zalbidea, Hodei Torres, Maddi Argote, Ane Zabala, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Jon Intxaurrega

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustuko Eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazio eskola, Arangoitiko Eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea, Bilbotik Perura

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Nerea Cubillo Urkizu

Diseinua: BO5T

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01



Jon Zubieta
Sanitarra

Betorik ez! Deustuko jaiak denontzat!

Hilabete honetan berriz ere izan dugu aukera Deustuko jaietz gozatzeko, urteko lehenetarikoak eta udaberria bezain modu goxoan datozkigunak negu luzea eta gero. Ez da beraz harritzekoa festek Bilbo osoan eta inguruko herrietan ezagunak eta preziatuak izateko adina oihartzun izatea eta jende mugitzea.

Hori kontuan hartuta, argi geratzen da jaietz aukera ezin hobe sortzen dutela herri oso baten parte-hartzearen bitartez guztiontzako atseginak eta dibertigarriak izan daitezkeen hamaika jarduera eta egitarau antolatuzko. Izan ere, Deustun eta beste edozein auzo eta herritan, norbanako eta eragile ugarien lan desinteresatuan datza jaien bideragarritasuna eta hori dela eta horien izaera zabala eta parte-hartzailea ezinbesteko ezaugarri bihurtzen ohi dira. Zentzu horretan jaiak


guztion ondare dira eta bertan parte hartzeko edo gehitzeko prest dagoen edozeinek gogoz egin dezake bere ekarpena.

Tamalez, Deustun, atzean interes politiko hutsak dituen beto baten ondorioz, bertan egunerokoan lan politiko eta soziala egiten duen eragile bati ukatu zaio aurten ere jai batzordean, eta ondorioz jaietan bertan, parte hartzeko duen eskubidea. Modu horretan, jaien izaera parte-hartzailea kolokan jartzeaz gain, guztiona izan beharko litzatekeen ondare horren nolabaiteko pribatizazioa ematen da, eta auzoko urteko bizitzaren atal garrantzitsuenetako batean parte hartzeko eskubidea erabaki arbitrario eta arrazionalen menpean geratzen da.

Oraindik egoera zuzentzeko garaiz gaudela, beto politikorik ez! Deustuko jaiak denontzat!



Itsaso Larramendi Elexgaray
Hiriaz eta beste



Emakumeak eta haurrak

Gazako hildakoak 4.469 dira, eta hamarretik zazpi adingabeak, emakumeak edo zaharrak (2023/10/21; naiz.eus). Macronek Israeli eskatu dio Gazan emakumeak eta haurrak hiltzeari uzteko (2023/11/11; elcorreo.com). 22.000 dira jada Israelgo Armadaren erasoetan hildakoak, gehienak haurrak eta emakumeak (2023/12/31; eitb.eus). Gazako Israelgo sarraskiak 30.000 hildako baino gehiago ditu: gehienak emakumeak eta haurrak dira (2024/02/29; elDiario.es).

Urriaren 7tik hona horrelako titularrek betetzen dituzte medioak egunero. Lerroburu horien formulazioan, baina, bada behin eta berriz errepikatzen den esamolde bat: emakumeak eta haurrak. Hitz bat bestearen atzetik, banaezinak bailiran.

Zergatik azpimarratu eraildako emakume kopurua haur kopuruarekin batera? Emakume palestinarrak esentzialki “inozenteak” dira ala? Ez al dira erresistentzia armatuaren subjektu? Eta gizon palestinarrak ez al dute beren heriotzaren izendapenik merezi? Gizon arabiarren dehumanizazioa. Emakume arabiarren otzantasuna. Ez al du honek guztiak kutsu kolonial eta arrazista sakon bat?



Aaron Barcina

Jatorria: Villarcayo, Burgos

Bizitokia: Deustu

Lanbidea: ikaslea



Zerk ekarri zintuen Bilbora eta noiz?

Batxilergoa bukatu eta hurrengo ikasturtean etorri nintzen Bilbora, unibertsitateko ikasketak egitera, 2018an.

Zuzenbideko ikasketak amaitu eta Gabriel Aresti euskaltegian euskara ikasten ari zara. Zerk eraman zaitu erabaki hori hartzera?

Argi neukan ikasketak bukatu ostean Bilbon egingo nuela lan, edo ingurunean behintzat. Ez dakit ondo zer egingo dudan oraindik baina Euskal Herrian bizitzeko euskara beharrezkoa dela ikusten dudanez, lehenengo pausua eman eta euskaltegian izena eman dut jada.

Hilabete batzuk daramatzazu jada euskara ikasten. Zein izan da eta zein da gaur egun euskararekiko duzun harremana?

Nire familia eta lagunak erdaldunak dira, beraz, ez dut euskararekin inolako harremanik eduki. Euskaltegitik kanpo, ez dut euskaraz hitz egiteko aukera askorik egia esan. Nire neska lagunarekin berriz, praktika dezaket zertxobait bera baita euskaltegira apuntatzera animatu zidana.

Zer da gehien eta gutxien gustatzen zaizuna Bilbon (Deustun) bizitzetik?

Hiri handi bat den arren, herri senti dezaket Bilbo. Dena hurbil dago, leku guztietara oinez joan zaitezke. Deustun bertan, beharrezkoak diren zerbitzu guztiak aurki ditzaizkezu eta garraio publikoa paregabea da.

Gutxien gustatzen zaidana familia urrun edukitzea da. Gurasoak eta anai-arrebak.

Zertara esango zenuke ohitu zarela hona bizitzera etorri zinenetik eta zertara etzara oraindik ohituzera iritsi?

Hasiera batean lo egitea kostatzen zitzaidan, hirian herrian baino askoz zarata gehiago dagoelako. Hemen-go etxeek piso eta auzokide gehiago dituzte. Herrian berriz, udatiarrak asko dira eta horregatik, urtean zehar etxe asko utzik daude.

Gomendatuko zenioke zure herriko norbaiti zuk egindakoa egitea? eta hala bada, nola eta zergatik? Ze aholku emango zenioke herriko norbaiti, zuk emandako pauso bera ematea pentsatzen ari balitz? Bai. Egia esam Villarcayoko askok hartu dugu Bilbo-

ra etortzeko erabakia. Bai unibertsitateko gradua, bai lanbide-heziketa ikasi nahi duen orok argi dauka herritik kanpo egin beharko duela. Egia da, lanbide-heziketari dagokionez, gero eta aukera eghiago ditugufila herrian, baina Bilbon aukera hori askoz handiagoa da.

Zenbatero bueltatu ohi zara Villarcayora?

Astebururo egiten den buelta Villarcayora, Bertako futbol taldean jokatzeko dudanez, asteburuetan partidua jokatzeko dugu eta ahal dudanez, asteazkenetan ere bertaratzen naiz entrenamendura.

Epe luzerako geratzeko asmorik duzu?

Lehen komentatu bezala, Bilbon ikusten dut nire burua urte batzuk barru ere bai. Lan irteerengatik batik batik. Izan ere, Bilboko alokairuak eta etxebizitzeko prezioak ikusita, ez dakit azkenean herrira joan beharko naizen eta egunero joan etorriak egin lanera.



BERTSOAK BADU TOKIA DEUSTUN

2011tik darama Elorri Bertso Eskolak Deustun bertsozaletasunari txoko bat egiten. Ikastola eta institutuko ikasleentzat eskolaz kanpoko eskaintza gisa sortua, eskolatik kanpo ere bertsoan aritu nahi zutenek aukera izan zezaten jarri zuten abian ikastolako hainbat gurasok Deustuko Bertso Eskola, Elorri izenez ere ezaguna. Elorriin hasi ziren bertsolarien lehen belaunaldietakoak dira Enare Muniategi, Mikel Aiartzaguena eta Ander Anakabe, besteak beste; azken honekin elkartu gara Elorri eta bertsoak Deustun duen tokiaz mintzatzeko.

Testua: PREST!

Institututik bertso-eskolara salto egin zuten haiek, hain zuzen ere bertsolari gazteentzat erronka handiena. Bospasei ikasle inguruko taldea bildu ohi du urtero Elorri, batxilergora iristean nabari da ordea lehenengo oztupoa; datozen ardura, interes eta behar berriek bultzatuta, maiz alde batera uzten dute bertsolaritza gazteek. Zaila izaten da baita bertso-eskolaren babesean errimak eta doinuak lantzetik, taula gainean abestu eta inprobisatzera pasatzea, horrek dakarren presioarekin, eta, gainera adin horrek berezko dituen galdera eta norberarekiko estimua eraikitze beharra gehituta. Bertso eskolak, hala, gazteei (eta ez hain gazteei) taulatan

molda daitezen erremintak emateaz gain, zuzenekoaren eta berehalakotasunaren presiotik at ere trebatzeko aukerak ere eskentzen dizkie bertsozaleei; doinuak eta bertsoak ikasi, landu, bertsoaz hitz egin, eta, kantatu nahi ez duenak, idatziz ere bertsoaz gozatzeko aukera izan dezan; izan bertako lagunez zein Euskal Herri osoetik etorritako ikaslez osatutako taldeetan.

Deustuko bertsozaletasunaren harira, Bilboko beste auzo batzuetan baino hobeto ikusten du egoera bertan Anakabek; giro euskalduna biziago egonda, bertsoak ere jarraipen handiagoa duela, "euskal kultura hori ikusten dut Deustun:



ikusten dut zenbat ume apuntatzen diren dantzetan, badaude trikitixa, txistua, panderoa jotzen dutenak ere... badago kulturarekiko lotura hori". Kulturarekiko gertutasun hau eta euskararen ezagutza funtsezkoak dira bertsogintzan, eta Deustuko bertsozaleen artean ere ikusten da arrakala hau: zale asko biltzen dira saioetan, baina hizkuntza mailak eta inprobisatzeko abilezia oztopo dira zale askorentzat, bertsoetan jarduteko pausua emateko garaian.

Bertsozale zein bertsolarientzat ezinbestekoak dira bertso saioak, eta alor honetan ere jarrera ekintzailea erakutsi du Elorrik: bertso poteoak, bertso afariak, Deustuko Jaietan Jai Batzordearekin batera antolatutako saioa... Bertsolaritza Deustuko egunerokotasunean txertatzeko saiakera da hau. Honen adibide argia da urtero ospatzen den Aferak ekimena, duela zazpi urte sortu zen Alde Zaharreko Bertso Errondaren ideia jarraiki sortu zena. Txapelketa formatua alde batera utzita, bertsolari gazteei kantatzeko espazio bat sortzea zuen helburu Elorrik, dozena bat ariketako saio herrikoia eta presiorik gabea alegia. Hasieran saio bakoitzak tematika bat jarraitzen bazuen ere, Herriko Taberna apaindu eta girotuta ere jorratzen zutena, denborarekin konbentzionalagoak

bihurtu dira saioak; Anakaberen ustez, unibertsitate garaian zeudela antolatzeak zekartzan abantailak, zuten energia eta klaseko jendea erakartzeko ahalmenak errazagoa egiten zuten jendea erakartzea; hala ere, egun oraindik auzoko zein unibertsitateetako jendea erruz biltzen da aferetan.



Deustuko Jaietako bertso-saioa ere data seinalatua bihurtu da deustuarren egutegietan; Elorriko bertsolariak puntako bertsolariak “teloneatzen” hasi ziren, eta norabide onean hasi ere, naiz eta laster konturatu ziren saioaren maila bermatu beharra zegoela. Azken urteetan deustuar batek parte hartu izan du urtero jaietako saioan, goimailako bertsolariekin batera. Esperientzia ederra izaten da hau bertsolari gazteentzat: “gogoratzen naiz behin Andoni Egaña, Onintza Enbeita, Jone Uria eta Igor Elortzaz aritu nintzela” dio Anderrek, “eta sekula egin dudana saio onena oroitzen dut; hain txalo erreza, nola zaintzen zintuzten beste bertsolariak... Agian ez hauen mailan baina nik ere egin dezaket kantuan haiekin modu duin batean”. Deustuko Jaietako saioak, gainera, adin talde oso desberdinetako jendea biltzen duela azpimarratu du Anakabek, ekitaldi oso “herrikoia” dela, eta adin tarte hauen guztien arteko hartu-emanen giro bikaina sortzen dela: “aurten asteartean izan da ostegunean beharrean, baina jendeak markatuta dauka eguna egutegian”.

Deustuko Bertso Eskolarentzat ezinbestekoa da etengabe saioak antolatu eta bertsolariarentzat aukera berriak sortzea, “ezin da kantatzeko zain egon. Gu, albokoak eta beste bertso eskola batzuk sortzen hasten badira, bertsolaritza elikatu eta bertsolari hobeak sortuko dira”. Printzipio hauek jarraiki, Bilboko zein inguruko beste zenbait bertso-eskolekin elkarlanean aritzen da Elorri; besteak beste, Santutxuko Bertso Eskola, Pottojorran, Señora Bertso Eskolarekin. Bilboko hirian antolatzen diren bertso saioak eta bestelako ekintzak koordinatu eta antolatzen dituzte elkarlanean, eta bertsolaritza interesatzen duten pertsonen gidaritza eskaintzen die, hiriko eskaintza ezagutu dezaten. Bi urtean behin antolatzen den Eskualdeko Bertso Eguna oso lagungarria egin zaie Bizkaiko bertsolari gazteei haien artean saretzeko, Anderren hitzetan, gainera “lehen sariketa zen eta gaur egun informalagoa bihurtu da, horrekin irabazi duela uste dut.”

Etorkizunera begira, betiko helburuekin irmo jarraituko du Elorri Bertso eskolak,





ikasle gazteak bertsolari bihurtzeko bidean laguntzen. Belaunaldi berriarekin pozik dago Ander, hala ere, betiko adinaren erronkaz gain, emakumezkoek jasaten duten presio eta zailtasun gehitua azpimarratu ditu “grafiko bat ikusi nuen non hasten ziren nesken kopurua oso altua zen, behin batxilergora iristerakoan behe-rantz egiten du zenbakiak, eta orain daukadan taldeko sei lagunetik sei dira neskak”. Bertsolari gisa bere horretan jarraituko duela azaldu digu Anakabek, “nik ez daukat asmorik txapelketan sailkatzeko edo ez dakit zenbatgarren gelditze-ko, agian Maitek (Sarasola) edo Enarek (Muniategi) eduki dezaketen bezela, baina txapelketan paper ona egiteko asmoa daukat”. Hala ere txapelketaren presiopean bertsoa lantzeak testuinguru informalagoetan lasaitasun handiagoz aritzea dakarrela azaldu du, hala gusturago aritzea duela helburu azpimarratu du Ander Anakabek. Elorrin sortu eta haziko diren hurrengo belaunaldiak esku honetan daudela argi dago; toki ederra du bertsoak Deustun.



SAN INAZIO IKASTETXEA 50 URTE!

Aurten San Inazio ikastetxeak 50 urte betetzen ditu. Hori dela eta, urte hauetan zehar eskola osatzen duten kideak omentzeko, Familia elkarteko kideok eskolako bi familia elkarrizketatu ditugu, hainbat belaunaldietan zehar eskola hau aukeratu dutenak.



Testua eta argazkiak: San Inazio Ikastetxea

Zergatik aukeratu zenuten san inazio ikastetxea?

Conchi, ama baten apustua

1984. urtean, nire alabaren eskola aukeratzeari, gauzak argi nituen: publikoa eta auzoan zegoena. Horrez gain, beste erabaki bat hartu behar izan nuen: euskaraz ikasi edo ez. Denek esan zuten “Nola ausartzen zara euskaraz matrikulatzera, ia-ia ez dago irakaslerik” Gure kasuan, eskola B ereduaren ematen zen bigarren ikasturtea izan zen eta ez zen inolako arazorik egon. Uste dut hartu nuen erabakirik onena izan zela. Ikasle gutxi zeuden gelan, irakasleak konprometitua ziren eta Eusko Jaurlaritzak inbert-

sio handia egin zuen. Hizkuntza ez zen oztopo izan; nire alabak etxerako lanak itzultzen zizkidan laguntza behar bazuen eta bion artean egiten genituen. Oroitzapen oso atseginak sortu dituzte eskolan.

Elisak, jarraitu

32 urte beranduago, nik, eskola publikoaren alde egin zuen emakume haren alabak, euskarazko irakaskuntza eta auzoko eskola aukeratu nuen. Hain zuzen, berriro ere aukeratu nuen San Inazio eskola. Gaur egun, hizkuntza ez da traba, baina eskola publikoaz hitz egiten



dugunean, jendeak immigrazioari buruz hitz egiten du. Nire ustez, balio erantsia da gure eskolak eskaintzen duen gainerako guztiari: gela zabalak, eskolako jangelan prestatutako janaria, gimnasio handia eta patio handiagoa. Ia ikastetxe guztietan bezala, hobekuntzak behar dira. Baina, zorionez, hezkuntza komunitatea zabalago osatzen dugu eta lanean ari gara eskolak aurrera egin dezan beste 50 urtez.



Orain, Alba eta Elsa

Eta orain, gure txanda da. 8 eta 6 urte daramatzagu eskolan eta asko gustatzen zaigu. Gehien gustatzen zaiguna da eskola oso familiarra dela, denok ezagutzen dugula elkar, helduak eta txikiak. Eskolak amaitzean, plaza jolastera irteten garenean, denok elkartzen gara. Eta euria egiten badu, eskolako patio estalira goaz, arratsaldero zabalik dagoena guk jolasteko. Munduko eskolarik onena da!

Izaskunen oparirik onena

Duela 30 urte baino gehiago, nire gurasoek

“Las Rojas” ikastetxean matrikulatu ninduten eta egin ahal zidaten oparirik onena izan zen. Eskola familiarra zen eta zorionez, oraindik ere, bada; Eskolan lortutako oinarriari esker, euskara maila altua eraman nuen institutura eta horri esker, euskaltegian jarraitu ahal izan nuen eta oso gazte nintzela euskara titulua lortu nuen. Oso oroitzapen ona dut eskolan emandako urteez, eta horrek lagundu zidan nire seme-alabak bertan matrikulatzeko. Idazkariak, ate irekien egunean, maskara jantzita ere nitaz gogoratu zenean, baiezatu besterik ez zuen egin “las rojas” eskolak familia-giro horrekin jarraitzen zuela. Nire seme-alabekin izaten ari naizen esperientziak eskolarekin konprometituta jarraituzera eramaten nau eta lanean jarraituko dut eskola betiko leku atsegina, seguru eta kalitatezkoa izan dadin.






DONEPERIAGAKO MAIORA, DORRETXEKO ANDREA (I)

Doneperiagako dorretxea Deustuko elizaren alboan zegoen, hur-hurrean. Dorre lerdena zen, itzaltsua, leinu ahaltzu baten bizileku. Manu Ugartetxea ikertzaileak XVI. mendearen hasierako Doneperiagako andrea identifikatu du: Maior edo Maiora San Pedro. Berau da askazi horretan ezagutzen dugun abaidetik zaharrena.

Testua: Hektor Ortega



Abenduko PRESt!en (252. zenbakia) Doneperiaga dorretxea hartu genuen hizpide. Daniel Luenegas ikertzailearen ondorioak ekarri genituen orrialde hauetara: Deustuko Done Peri elizaren ondoko dorretxe hura Erdi Aroko leinuen gotorleku petopettoa zen, altuera handikoa, kadaltso eta harresiduna. Dorre segaila eta leinu boteretsua, beraz, baina batere arrastorik utzi gabe desagertuak bata eta bestea.

Bada, oraingoan beste ikertzaile baten ekarpena aipatu nahi dugu. Manu Ugartetxeak Nikolas Arteita lekeitiar kapitainaren bizitza berregin du eta bertan azaldu da Doneperiaga dorretxeiko ugazabandrea nor zen XVI. mendeko lehenengo urtee-

tan. “Noticias sobre el capitán Nicolás de Arteita y algunos de sus familiares y convecinos lekeitianos” ikerketa interneten dago eskuragarri. Egia esanda, pertsona ezin interesgarriagoa azaleratu du Ugartetxeak. Mayor edo Mayora de San Pedro gisa aipatzen dute agiritan. Ez daukagu aitaren aldeko familiaren berri; ama, berriz, Juana Legizamon izan zuen, Begoñako Legizamondarren artekoa, Bizkaiko leinu ahaltzuenetako bat. Begoñako elizako patrioiak ziren. Kontua da Maiora, umea zela, Deustuko Martin Ibañez Leuzarrakoarekin ezkondu zutela. Leuzarra edo Luzarra hura ere gaztetxoa zen. Izen bateko aita zuen, Bizkaiko gizon aberatsenetakoa, ontzigintzan eta nabigazioan aritua. Hain zuzen, senargaiaren

gurasoek mila dukat eta Berrizko baserria eman zieten dotetzat Maiora eta Martin ezkongaei. Baina, hori bai, donazioa ez zen gauzatu ezkontzeko unean: erdia jaso behar zuten “cuando copularen” eta beste erdia, ohiturari jarraituz, gurasoak hiltzean.

Maiora San Pedrok eta Martin Ibañez Lezaurrakoak alaba eduki zuten, Maria Ibañez Leuzarrakoa. 1503an Martin Ibañezek testamentua eman zuen Segovian eta handik lasterrera hil ei zen. Alargundu eta gero, Maiora berriro ezkondu zen, 1514an, Lekeitioko Nikolas Arteita kapitainarekin. Ez zuten ondorengorik izan. 1529tik Arteita Cadizen egon zen, korrejidore, baina andrea hemen gelditu zen eta 1530ean hil zen.

Doneperiagako Maiora

Esan legez, ez dakigu Maior edo Maiora (bietara aipatzen dute agirietan, baina berak sinatzean Mayor erabiltzen zuen) nork eduki zuen aita. Baina, itxura guztien arabera, haren bitartez jaso zuen Doneperiaga, lerro hauen buru aitatu dugun dorretxea. Eta, esan dugun legez, hura ez zen edozein eraikin, leinu itzaltsu baten bizilekua baizik.

Eta Maiorak itzala bazeukan. Bilbo astindu zuen auzi batean nahastu zenean, Zelaia lizentziatuak salatu zuen behar ez zuen lekuan sartu zela Maiora “ahaide nagusi gisa agertzeko”. Ahaide nagusia leinuen burua zen, jendarte feudalaren burua. Hortaz, ahaide nagusi agertzea bazen zerbait sasoi hartako Bizkaian. Itzal hori Deustuko familiaren aldetik etorri ahal zitzaion baina baita, esan

legez, amaren aldeko Legizamon ahaltsu eta harroengandik.


Maiora San Pedrok Maria Ibañez Leuzarrakoa alaba Andres Arbietorekin ezkondu zuen. Horrela heldu ziren Arbietotarrak Doneperiagako dorretxera. Eta, esanguratsua, Maria Ibañez eta Andresen seme batek, Maioraren lobak, Arbieto Doneperiaga deitura erabili zuen. Beraz, Maior edo Maiora San Pedro idatzi zuten agiri haiek Maior edo Maiora Doneperiaga esan nahi ote zuten?



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99



Testua: PREST!

Martxoaren 8a beti egun berezia. Borrokarako, salaketarako eta indarrak ateratzeko eguna askotan. Mina erakusteko beste askotan. Aurten berriz, zaintza-sistema publiko eta komunitarioaren aldarrikapena egiteko eguna. Emakume eta langile gisa, arlo pribatuan zein publikoan, lanean eta zainketan ze erronka ditugun erreparatu eta aditzera emateko eguna. Urtearen balantzea egiteko eguna: zer utzi dugun bidean, zer jaso, zer erain... Emakume Langileon Nazioarteko eguna beraz.

Martxoaren 8an bertan, Mugimendu Feministaren eskutik zerbait azpimarratu bazen, zaintza eskubide kolektiboaren aldeko borroka eta haren mugarr nagusia izan den Greba Feminista Orokorra izan zen. Zaintza eskubide kolektiboaren aldeko borrokararekin batera badira gure “munduan”, urtean zehar, oihartzuna izan duten auziak. Badira beste hainbeste oihartzun zaratatsu emakume langileon borrokan.

Zinemak alegia, badu bere oihartzuna feminismoan eta urtearen balantzea egiterakoan, badu bidean utzitakoa, jasotakoa eta ereindakoa. Zinemaren industriak oraindik ere hainbat aldaketa behar dituen arren, aurten lorpen eta momentu ikonikoek zinemaren mundua nolabait zaharberritu dute. Hona hemen horietako batzuk:

“Barbie” eta “Pobres criaturas” pelikulen estreinaldiekin feminismoa zinemaren bihotzera iritsi da mundu osoan.

Harira, Greta Gerwig izan da “Barbie” filmarekin 1.000 milioi dolar baino gehiago bildu dituen lehen bakarkako zuzendaria.

Aurten ere zinemako sexu-eraso salaketak igo egin dira. Espainian, 6 emakumek salatu dute Carlos vermut zuzendaria sexu-indarkeriagatik. Armando Ravelo zinemagilea zinematik erretiratu da adingabe bati sexu- iradokizunak egitea leporatuta eta Gérard Depardieu aktoreari 13 emakumerenganako sexu-indarkeria leporatu zaio.

Jaione Cambordak donostiarrek irabazi du 2023ko Zinemaldiko Urrezko Makorra “O corno” filmarekin.

“Creatura” film espainiarrak emakumeen desira sexuala bezain ahaztua eta isildua den gaia ereman du pantailara.

Aurten film famatu eta premiatu askok emakume ekoizleak izan dituzte atzean, hala nola Emerald Fennell’s “Saltburn” filmean, Celine Song “Past Lives” filmean eta Sofia Coppola “Priscilla”n.

Maca Gil madrildarrak “Robot Dreams” filmeko storyboard-a egin du eta filma Oscarretarako izendatu dute.

Zinemaren mundua zaharberrituz badoa ere, beste “mundu” askok zahar diraute. Indarrak hauspotzen jarraituz loratuko ditugu horiek!

Zaintzarekin negoziarik ez!



Testua: AEK

Tipi-tapa tipi-tapa KORRIKA!! 23. Korrika etorri baino indartsuago joan zaigu, harro, herria euskalduntzen. Oraingo ere edizio erabat hunkigarria izan da eta anekdotaz beterikoa. Gazte zein zahar, emakume nahiz gizon, guztiok euskararen aldeko aldarri erraldoiaren parte izan gara beste behin ere. Irunen ilusioz gainezka hasitako lasterketak eztanda itzela izan zuen Baionako karriketan barrena. Herriak bere harrotasuna erakutsi du inoiz baino ozenago.

Batetik besterako bidea zinez polita izan da, halako ekimenetan herri baten nortasuna eta harrotasuna azaleratzen da; eta guk, 23. aldiz, kantu, oihu eta izerdi artean, irribarrez aldarrikatu dugu Euskal Herri euskalduna nahi dugula. Eragile eta norbanako guztiak esker ateratzen dugu Korrika aurrera, eta ematen ditugun eskerrak ez dira sekula nahikoa izango euskararen alde egin eta egiten duzuen lana baloratzeko. Biba zuek!

Iruneko hasieratik Baionarako bukaera ospakizun zoragarriko tartea posible izan dadin auzo eta herri bakoitzean egindako talde lana ezinbestekoa izan da oraingoan ere. Geurera ekarrita, Deustu, San Inazio eta inguruko auzoetako eskuak eta gogoak izan ditugu bidelagun hilabeteotan. Deustu eta Saniko Korrika Batzordeak eratu genituen, hilabete hauek zehar gure auzoetako kaleak apurka-apurka girotzeko asmoz.

Martxoaren 20an barrutiko Korrika Txikia egin genuen. Izugarria izan zen eta 10 eskola/ikastola batu ahal izan genituen, Botikazarretik hasita eta Levante plazan bukatuta. Irakasle eta ikasle oro atera ziren musika, txalo eta irribarre artean: umeak pozik, hel-

duak harro. Ume horiek izango dira gure herriaren etorkizuna! Aupa Deustu, Erribera, Ibarrekolanda, Arangoiti eta San Inazioeko gazteria euskalduna! Ederra izan zen adin guztietako txikitxoak elkarri lekukoa eta pankarta pasatzen ikustea, gure hizkuntza zaharra transmititzen.

Deustun Korrika poteoa egin genuen martxoaren 1ean, eguraldia lagun ez izanagatik ere. San Inazio trikipoteoak eta bertso afariaz gain, umeentzako tailerrez eta Bizkarsoro filmaz ere gozatu ahal izan zuten. Bi auzoetan, aspaldiko argazkiak batzen saiatu ginen tabernak atontzeko asmoz, baita bideo bat egiteko ere. Eskerrik asko zuen ekarpenengatik!

Bilboko kaleak hartu genituen, normalizazioaren alde, doakotasunaren alde, hizkuntza politika egokiaren alde, euskararen kontrako oldarraldien kontra. Gure auzoek harro eta irmo erakutsi zuten gure hautuak ez duela atzera bueltarik: Euskal Herri euskaldun bat nahi dugu! Herri bat hizkuntza barik ez baita ezer, eta euskaldunok aspaldi erabaki genuen altxor hau defendatzeko prest gaudela.

23. Korrika badoa, olatu geldiezin baten pare. Hala ere, bukatu berri den honetan, hurrengo prestatzeari ekingo diogu, betiko kemenaz eta itxaropenaz. Egunen batean Korrika beharrezkoa izango ez den itxaropenaz, seinale bikaina izango baita: Euskal Herri euskalduna lortu dugu. Amets horren bidean, zuon babesak ezinbestekoa izango da; auzoetako eragile, norbanako eta lagun talde bakoitzari eskerrik asko, bihotz bihotzez.

ZUEK ZARETE KORRIKA!



berbetan

SILVIA RODRIGOrekin

STOP TALA Deustoko kidea

“Udalak nahiago ditu auzokideen

Natura eta ingurunea oso presente izan ditu beti Silvia Rodrigok. Aurreko udan, Lehendakari Agirre etorbideko 128 zumarren mozketak STOP TALA Deustoren sorrera eta hainbat eta hainbat manifestazio zein elkarretaratze eragin zituen.



kexak lorezaintzan dirua xahutzea baino”

Jakin badakigu pasa den udan Bilboko Udalak Lehendakari Agirre etorbidea birmoldatzeko programatutako obren ondorioz, zumarren mozketa hasi zuela eta horrekin batera, zuek STOP TALA Deustutik, manifestazio eta elkarretaratzeak hasi zenituztela. Zein izan zen hasiera batean Udaletik, Lehendakari Etorbideko 128 zumarren mozketa justifikatzeko eskaini zitzaizuen azalpena?

Lehenik eta behin, elkarte gisa obrei zegozkien txostenenak eskatu genizkion Udalari. Aurreproiektuaren espediente osoa eskatu genuen, batez ere, Udaleko webgunean falta zen informazioa eskuratzeko asmoz. Espedienteari erantsitako lorezaintzako txostenak 5 zuhaitzen inguruko 5 fitxa besterik ez ziren. 128 zumarretik 5ek zuten soilik tomografia egina. Horien artean kalte nabarmenak zituen bakarra, edukiontzi baten kiskaltzeagatik erretako zumarra zen. Gai-nontzekoek, 45 urteko edozein arbolak eduki ditzakeen xehetasunak zituzten, besterik ez. Egja da Zumar Siberiarra, gaixo zeinurik eman gabe gaixorik egon daitekeela eta bapatean erori. Udazketan onddoek eragiten duten izurritea gerta dakieke zumarrei baina tratagarria da. Nahi izanez gero, moztu baino lehen tratatu eta bizirik mantendu zitezkeen baina argi dago Udalak nahiago dituela auzokideen kexak, lorezaintzan dirua xahutu baino.

Horren aurrean, zeintzuk izan ziren STOP TALA Deusturen lehen pausuak?

Zumar guztien tomografiak eskatu genituen erantzunik jaso gabe. Eskatu genuen informazioa ukatu ziguten, lorezaintza eta lorezaintza-teknikarien arteko kontua zela argudiatuz. Hori ikusita, martxan jarri ginen.

Lehenik eta behin Arartekora (Euskadiko Herriaren defendatzailea) jo genuen eta prozesu horretan, gardentasuna bermatzeko abisua eman zitzaion Udalari. Abisua emanda ere, Udalak ezizkigun txostenak bidali eta Eusko Jaurlaritzako gardentasunean salaketa jarri genuen. Azkenik, Urtarrilaren 20an Bilboko Udalari informazioa erakusteko agindua eman zitzaion Eusko Jaurlaritzatik.

Pasa den hilean Eusko jaurlaritzak Bilboko Udalari Desutuko zumar mozketak argitzeko eskaera egin ziola jakin genuen. Gardentasunak adierazi zuenez, Udalak informazioa ukatu zien bizilagunei eta 10 eguneko epea eman zitzaien informazio hori kaleratzeko. 10 egun horiek pasata nola dago egoera? Ze espero duzue infor-metik?

Hilak 10, informazioa eta dokumentazioa erakusteko eman zitzaizkien 10 egunak bete ziren egunean bertan, Udaleko deia jaso genuen esanez dekretua argitaratzearen zain zeudela txostenak CD bidez

“Eskatu genuen informazioa ukatu ziguten lorezaintza eta lorezaintza-teknikarien arteko kontua zela argudiatuz”

berbetan

SILVIA RODRIGOREKIN

SILVIA RODRIGOREKIN

▷ ▷ SAKONEAN

“Betidanik izan naiz oso pertsona sentikorra natura eta ingurumenari dagokionez”

Izan ahal duzue Desutualdeko bizilagun eta komertzioen aldetik sostengu edo babesik?

Bai hala da. Askoren artean Rementeria Loradendak nabarmen lagundu digu. Agirren Lehendakariaren Etorbidean dago kokatuta eta zumarrak bota zituztenean beroaren eta temperaturaren ondorioak pairatu behar izan zituzten eguzkiaz estaltzeko olana bat jartzeraino. Bertako jabeak esan zigun lanean dar-matzaten 40 urteetan ez dutela holakorik behar izan baina egoera jasangaitza zela.

Silvia, zuri zerk eraman zintuen zuri pertsonalki hasiera batean STOP TALA Deusto eta orain, HIRI BERDEAK bezalako dinamika batean esku-hartzera?

Betidanik izan naiz oso pertsona sentikorra natura eta ingurumenari dagokionez. Ama naiz eta beti jakin izan dut nire alaba sentikortasun eta ideia berdinen inguruan heziko nuela.

Urrunetik dator guzti hau baina udalarekin dudak borroka duela pare bat urte hasi zen. San Inazioko Larrakotorre kalean udalarengandik zetozen gehiegizko eta neurrigabeko mozketak ikusi nituenean, El Correora idatzi eta “zuzendariari gutunak” sailean nire salaketa zeraman artikulu bat argitaratu zuten. Artikuluaz geroztik hainbat talde politiko nirekin kontaktuan jarri ziren eta orduantxe hasi zen udalarekiko dudak liskar pertsonala.



pasatu ahal izateko. Deia jaso nuenean nire lehen susmoa fitxa edo txosten horiek a posteriori egin zirela izan zen. Izan ere, obrak egin aurretik 5 fitxa baino ez ziren ageri eta zuhaitz gehiegoren fitxak egin behar izan dituzte presioa egin dugulako. Horrez gain, uste dugu arbolak ez daudela gaixorik. Abaunza jaunak esan zuenez, lorezaintzako alor-rak agindu zuen zumarren mozketak, horien zaintza eta mantenimenduak lan handia suposatzen zuelako.

Horregatik eta beste hainbestegatik uste dugu guzti hau diru kontua dela. Zumarrak ezeudela gaixo, asko eta azkar hasten zirela eta lan handia eskatzen zutela. Aurrekontua baxua zela alegia. Laburbilduz ezer berririk. Arbolak gaixorik zeudela ziurtatzen duen informarik ez. Datarik gabeko edo aldatutako datak dituen txostena eta a posteriori eginito tomografiak. Informazio manipulatu alegia. Arbola bakoitzeko tomografia bakoitzak 400 euro balio ditu. Udalak 8 milioi euro gastatu ditu euren proiektu honetan, obra atzeratzeagatik ordaintzen daudena kontuan hartu gabe. Ez dugu sinesten ezin izan direla 250.000 euro gastatu arbolak salbu mantentzean.



Zein da moztu dituzten zumarren eta jartzen ari diren arbolen arteko desberdintasuna?

Zumarrak 12 subespezie ditu eta horietatik bakar bat hartzen da autoktono gisa, zumar europarra batik bat. Guk zumar siberiarra geneukan eta orain, red point astigarra landatu dute. Zumarrak luzera 30 metro har ditzazke. Tamainaz handia da eta hortaz itzal handia eta tenperatura altu zein baxuenganako babesa eskaintzen du. Bertan txolarrre, zozo eta urrakak bizi dira besteak beste. Pinuaren atzetik, CO2 gehien usurpatzen duen arbola da zumarra.

Astigarra berriz, miniaturazkoa da eta tamaina txikiari so eginez, bonsai arbola deitu izan zaio. Gehienez 10 metroko altuera hartzen du, bigarren pisu batera heltzen da alegia. Beraz ez du itzalik ematen, CO2 minimoa usurpatzen du, hegaztiek ez dituzte euren habiak jarriko, haizearekin mugitu egingo dira jausteko arriskua sortuz. Inpaktu akustikoari dagokionez, zumarrek etorbideko zarata estaltzen zuten eta astigarrek ez dira hurbiltzen. Astigarra gainera ez da inautsten, inautstekotan ez baitu bizirik iraungo.

Zein da HIRI BERDEAK-en helburu nagusia eta ze aurrerapauso ematen ari zarete gaurdaino?

Helburu nagusia ahalik eta arbola gehien salbu mantentzea da. Orain arte ikusten ari garena da udaletik egiten diren obrekina bat datozela zuhaitzen mozketak eta hori da gehien bat gelditu nahi duguna.

Udalarengan presioa egin nahi dugu obra bat egin baino lehen arbolen mozketari pare bat buelta ematera bultzatzeko.

Beste heleburretako bat hiri-zuhaitzia babestuko duen legegintza bat lortzea da.

Europako arborikultura estandarrak zuhaitzak inautsuarri, landatzeari eta eustearri buruzko txostenak argitaratzen ditu eta europako araudi teknikoak dira. Horren eta zuen

egoeraren arteko konparaketarik egin duzue?

Bilbon alor hori HAPOK (Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra) hitzartzen du.

Udan plan osoa irakurri nuen goitik behera eta apuntatu nituen gauzen artean, "Berdeguneen sailkapena eta zonifikazioa" atal dio Berdeguneetan ezartzeko erabili beharreko landare-materialei dagokienez, lursaillean dauden zuhaitzak errespetatuko direla eta zuhaitz berri batek gutxienez 10 cm-ko diametroa izan behar duela landatzen denean". Arboletara hurbiltzen bazara ikus dezakezu arbola sostengatzen duen zurkaitza, zuhaitza bera baino lodiagoa dela. Argi dago hori legez kanpo dagoela.

Hiri huts batetik hasita aldaketa handi bat egin daitekeela uste dugu eta elkartzeko bagara, helburu bakar eta kolektibo batetik abiatuta elkarlanean gauza handiak lor ditzazkegula uste dut. Bilboko Udala oso gustora ibili da orain arte nahieran jokatzeko, gurekin topo egin duten arte.

"Bilboko Udala oso gustora ibili da nahieran jokatzeko, gurekin topo egin duten arte"

Ze mezu bidaliko zenioke kontziente ez denari eta zein Bilboko Udalari?

Kontziente ez denari altxatzeko begirada lurretik. Begiratzeko zuhaitzen garrantziari, zuhaitzek dakarrenari, zuhaitzik gabe izango ginatekeenari...

Zuhaitzak ez direla hostodun makila hutsak. Eskaintzen duten itzala ere badirela; tenperaturaren egokitzapena, txolarreen euskarri, fauna, biodibertsitatea ere badirela zuhaitzak. Gutxi batzuk elkartzeko bagara, txikiak bagara ere gauza handiak egin ditzazkegula ere esango nuke.

Udalari esango nioke entzuteko, jartzeko kontaktuan gurekin, ez garela etsaia. Baina bereziki, lorezaintzarako aurrekontua igo behar dela. Urteak daramatzagu lorezaintzako aurrekontua beherantz doala ikusten eta eskakizuna egiten dugu lorezaintzan inbertitzeko eta arbolazainen eskutik lorezaintza ikastaroak emateko.

KULTURA

Desutuko andrazkoen aurrekuak, 25 urte

Hektor Ortega Laherak, Bihotz Alai taldearen ahaleinigaren emaitz gisa atera zen liburuan, Deustuko andrazkoen aurrekuaren artikuluan idatzi zuen nola Iñaki Irigoienek Deustuko andrazkoen gaineko artikulua plazaratu zuen (“Deustuko Jaiak eta andrazkoen aurrekuak”, Prest! aldizkaria, 1.zenbakia, 2001eko martxoan).

Bertan, honako hau idatzi zuen: “ora-in dela mende eta erdi, Desutualdeko emakumeak eta euren zortziko edo aurrekuak herriko jaietako egun handienaren ardatza ziren. Dantzaldi nagusiaren ardura, hortaz, bertoko andrazko ezkonduen bizkarretan zetzan”. Aurten 25 urte bete ditu andrazkoen aurrekuak berak.

KORRIKA

Korrika Edinburgon ere

Korrika euskal hizkuntza sustatzeko herri lasterketa gisa definitu dute Edinburgokoek. Honen helburua bikoitza dela ere gehitu dute: batetik, hizkuntzaren inguruko sentsibilizazioa sustatzea, eta, bestetik, AEK-ko euskaltegiek eguneroko irakaskuntza lanean jarraitu ahal izateko dirua biltzea.

Eskoziako euskaltzaleek eta euskaltzaleek ekitaldi bat antolatu dute Edinburgon Korrika 2024 ospatzeko. Ekitaldia doakoa den arren, bazkaltzeko eta arratsaldeko ekintzetarako txartelak behar dira. Txartel bakoitzak 3 plater izango ditu: bazkaria (aukera beganoa eta begetarianoa ere bai), edari bat eta aperitifboa.

KIROLA

Mendiari buruzko bi lan berri Primeran plataforman

“Bizitzera arriskatu eta “2T on Paiju Peak” dokumentalak euskaraz ikusi ahalgo dira. Baita Danimarkako “Darkness: Those Who kill” telesaila ere. Martxoaren amaieratik aurrera, mendia eta mendiarekin lotutako filmak maite dituenak eskuragarri ditu bi lan hauek Primeran-en.



ECUADOR ETXEA

Ecuadro Etxeak pertsiana bota du Deustun 16 urteko ibilbidearen ostean

Kulturartekotasunaren, komunikazioaren eta gizarte-eraldaketaren esparrua lantzen duen erakundeak, Euskal Herriko eta Ekuadorko erakunde eta kolektiboekin buruz buru egiten du lan.

2000. urtean sortu eta gaur, baliabide ekonomiko mugatuak direla eta aukera guztiak agortu eta hainbeste urteetan hartu dituen auzoari, Deustori, agur esan besterik e dute izan. Hala bada ere, Deustuko egoitza ixtearekin ez da Ecuador Etxearen lana amaitu, etapa berri baten hasiera da.





Urtea: 1996

Txema Luzuriaga

Puente de Euskalduna

Euskalduna zubiarekin jarraituko dugu martxoan. Propio duen kurbaduragatik ibiltari edo oinezkoen arreta deitzen duen zubia metalezko egitura sendoz eraiki zen eta 250 metroko luzeera, 27 metroko zabalera eta 71 metroko altuera ditu.

Erdibitzaille batek zatikatzen dituen bi norabidetan banatutako lau errei ditu ibilgailuentzako. Oinezkoentzako bideak zabalerako 9 metro ditu eta bidegorrirako espazioa du baita. Markesina handi batek estaltzen du oinezkoentzako bidea eta horri esker, ibiltariak zubia zeharka dezake, eguraldi kaskarretik babestuz.

Irudian, zubiaren bi aldeak elkartzeak sortu zuen ikusmina ikus dezakegu. Zangokari bate do beste ikuskizunari begira ere.

Segi Deustualdean euskara sustatzen. Eskerrik asko denoi!

YVES ROCHER FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303



ATXURI TABERNA

Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

Iragar zaitez

Prest!

-en

tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com




**Alonso
Pertsianak**

Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 656 410 475
alonsoper@outlook.com

Optica Avenida

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:
SAN INAZIO 94 475 11 24



Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

1924tik Deustun

Eintoreria La Flor

Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze
jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua

Probatu **herrizki.eus**

ANDROID APP Google play Apple App Store

ERRO ZERBITZUA GOBIERNO VASCO BFA

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@euskalnet.net

Matxintxu aek euskaltea

Matrikula zaitez!

Nailan

Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA

Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia

PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda Sabin Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

PERSIANAS KM CERRAMIENTOS

Deitu eta Ikusi!!

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE

elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Ze asmo daukazu Aste Santuetarako?



**Julen
Deustu**

Aste Santuetako lehen
asteen herrira joango naiz
eta bigarreanean, Sevillara
Kopako Finala ikustera.



**Maite
Deustu**

Aste Santuetan Deustuko
jaietako nekea errekupe-
ratu, deskantsatu eta pilak
kargatuko ditut kurtsoa ondo
amaitzeko.



**Arnau
San Inazio**

Aste Santuetan Segurara
joango naiz familia
bisitatzera eta bertako
prozesioa ikusiko dugu
herrikoia eta oso famatua
delako.



**Nerea
Deustu**

Atsedean hartzea,
famiariarekin denbora
pasatzea...



**Ander
Deustu**

Hasteko, alkohola eta
juerga alde batera
utziko ditut. Hori da nire
intentzioa baina lagun
baten herrira joango naiz
egun batzuk pasatzera eta
izan daiteke han juergaren
bat botatzea.



**Maitane
Deustu**

Granadara noa Alhambra
urrunetik ikustera ez
daukadalako sarrerarik.



harkua bete herria

>> KULTURA

MARTXOARENA. HERRI BIZI BAT, HERRI HANDI BAT

Testua: Antxon Agirre Ibarra

Euskal Herriko agenda bizia bada ere, urteak hamabi hilabete izan arren, bada hilabete bat berezitasun handia daukana. Martxoaz ari naiz. Urteko hirugarrena, ikasturteko zazpigarrena. Hilabete honetan, aste gutxiren bueltan, herri honek amesten duen etorkizuna irudikatu eta praktikan islatzeko aukera izango du.

Batetik, Bilbo bezalako metropoli handian, non hizkuntza hegemonikoak dena estaltzen duen, euskarazko sorkuntza hutsean murgiltzen zaizkigu aretoak Loraldia jaialdiaren programazioaren baitan. Aipamen berezia egin nahi diot, hamar urteko bide honetan, Bilbori egindako ekarpenagatik. Euskal kulturgintzak lehen mailako aitortza izan dezan, bide luzea dago aurretik hirian, eta Loraldiak, euskal komunitateak nahi eta behar dituen urratsak abiatu ditu.

Hilabete honetan, Deustun eztanda egiten du jaietako txupinak. Eta, bi astez konpartsek, gazte koadrillek, ume zein guraso taldeek parte hartzen dute Jai Batzordeak antolatutako egitarauan. Jai herriko, euskaldun, parekide eta parte hartzaileak ez dira kasualitatez sortzen. Deustuarron lan konprometitu eta asmo handiko emaitza dira Munduko Arrozak gastronomikoa, umeentzako egitaraua eta kontzertu eskaintza, besteak beste.

Bi urterik behin, martxoan ere bai, hizkuntza baten alde egiten den egitasmorik harrigarriena gauzatzen da Euskal Herrian: Korrika. Gaueko ordu txikitan

zein elur artean bada ere, ez dago zorakeria hau gelditzerik. Edizioz edizio, ekimen honen fenomenoak herri oso baten identitatea bereganatu duela esan daiteke harrotasunez.

Garai honetan, Euskal Herriko gazte mugimenduko kideok, urteko hitzordua izaten dugu Ernaik antolatutako udaberriko ekimenean. Hausnartu, eztabaidatu, hunkitu, partekatu eta utopiak irudikatzen arnasegunea izango da aurtengoa ere. Gazte independentistok, zer nolako Euskal Herria eraiki nahi dugun gaur eta hemen marrazten ari garen honetan, egitasmo honek argi islatzen du gazteon konpromiso eta antolakuntzarako grina.

Konpromisoaren haritik, ezin dut aipatu gabe utzi, udaberriko oporraldian, Deustuko Txantxiu Aisialdi Taldeko begirale boluntarioek, beraien opor egunetan, lau eguneko irteera antolatzen dutela. San Inazio, Erribera, Arangoiti eta Deustuko umeek hezkuntza ez formalak dituen berezitasunak bizitzeko aukera paregabea. Euskaratik eta euskaraz erakitzen den mundu bihurri, jostari oparoz gozatuz.

Martxoa, lorategi berri baten hazia. Herritik eta herriarentzako udaberri ameslaria. Uzta oparo bat. Euskal kulturaz, konpromisoz eta balore eraldatzaileez betea. Bestelako eredu baten aldeko bulkada. Martxoarena. Ilusioa, estresa, kaosa, maitasuna... Herri bizi bat, herri handi bat.

 **Egunean Behinek 5 urte**

5 urte bete ditu “Egunean behin” galdera erantzun joko ezagunak. Tribial estiloko euskarazko galdera-erantzunen jokoa da “Egunean behin”, Codesyntax enpresak garatua. Eguneko partida bakarra jokatzeko aukera ematen du. 10 galdera-erantzun ahalik eta azkarren.

Sorpresaz betetako galdera eta sariak egongpo dira urteurrena ospatzeko. Saria: Patxi Huarte zaldieroak ilustratutako 100 kamiseta. 50 sailkpenaren arabera eta 50, beste zozketaren arabera. + galdera bereziak.

2019ko martxoaren 4an ekin zitzaion jokoari eta 5 urte pasa dira ordutik. 5 urte, 14 denboraldi eta 160 aste. 220.000 pertsona baino gehiago dira jokoan ibili direnak eta 50 milioi partida jokatu izan direnak. 2019an sortu eta kaleratu zenetik, Euskal Herriko entretenimendu-kulturaren zutabe bihurtu da, adin eta jatorri guztietako jokalariai ekarriz. Bost urte hauetan gehienak euskal herrian bizi diren jokalariai izan dira, baina mundu osoko 45 herrialde desberdinetan kokapena duten jokalariai euskaldunek ere hartu dute parte.



CodeSyntax
egunean behin 5^{URTE}

5 URTE

ASTE BEREZIA

Saria: Zaldieroak ilustratutako 100 kamiseta



DEUSTUK ERE BADU BERE ASTE NAGUSIA

Egun seinalatuak dira deustuar guztien egutegian, nola ez, Deustuko Jaiak; aurtengoak gainera bereziak: Errege Dekretu jada ezagun horrek duela 100 urte anexionatu zuen Deustu Bilbora, hala, egun hauetan Done Petri plazan zutik egon den udaletxeak izan du pisu berezia, eta baita aurtengo egitarauak ere. Jai Batzordeak aski berotu zituen jaien aurreko egunak, Deustuk “Aste Nagusi propio bat” izango zuela azaldu zuenean ia 10 eguneko jaiekin, eta baita bete ere.

Testua: PREST!



Jaiak iristeko bi egunen faltan hasi zen jada giroa berotzen eta txosnagunea hasi zen pixkanaka Deustuko erriberan forma hartzen. Aurten ere berdintasun eta parekidetasunetik eraiki nahi izan ditu jaiak Jai Batzordeak, baita ikuspegi euskaldunetik ere, noski. Aurtengo berezitasuna eta protagonista, ordea, umorea izan da. Anjel Alkainen sketch batetik irtenak ziruditen txosnaguneko kartel eta aldarriek; hizkuntza eskubideak bermatzeko, Jai

Batzordeak txosnaguneko langile guztiek C.A.C.-a (Certificado de Aptitud de Castellano) edukitzea bermatu zuten, bertaratuko zuren guztien hizkuntza eskubideak errespetatzeko. “Erderas” ere “se habla” Deustun dirudienez.

Martxoak 15ean hasi ziren jaiak arratsaldeko txupinarekin. Erraldoiek eta musikariek gidatu zuten kalejira Bihotz Alaitik Done Petri plazara, eta giro

KOMEDIA MADARIKATUA DIVINA TRAGEDIA

OTSAILAren 16tik 25era

Dramaturgia
TOMÁS AFAN MUÑOZ
Zuzendaritza
SAIOA IRIBARREN MUÑOZ

Antzezleak
SILVIA LARRAURI DE MIGUEL,
LUIX MITXELENA MITXELENA,
ANDREA MORA AHEDO, UXUE FUERTES VECA,
ZIGGY DOCHERTY SÁNCHEZ,
AITZOL VILLAHOZ PRIETO

www.pabellon6.org



P6
BILBO HERRIKOIAK
COMPARTIA 2018

bikaina sortu zen bertan; jai luzeak ziren aurretik eta bertaratu zirenak gogoz eman ziren ongi etorria. Bederatzietan txosnen irekierarekin ere moztu zen aurtengo Deustuko Jaietako beluzesko zinta gorria, hasiak ziren jaiak. Oinutsik erromeriak girotu zuen gaua, jendetzari etxera joateko ordua heldu zitzaion arte. Bixamona igarotzeko garaia batzuentzat, etxeko gazteenek tailerrak izan zituzten larunbat goizean; batzuk karetak egiten, eta besteek merkatu solidarioan igaro zuten tartea; eguerdian Gure Herria dantza taldeak jarri zituen dantzan frontoi inguruan zeuden guztiak.

Urtero ospatzen da Munduko Arrozak ekimena plazan, aurtun izugarritzko parte hartzea izan duena; 1000 pertsonatik gora bildu zituen ekintzak. Musiak eta dantzak jarraitu zuten arratsaldeko Playback leihaketan ere. Jarraian suzko zezena (beganoa, lasai) eta poteo musikatu feminista izan ziren gazte eta ez hain gazteen gozamenerako. Iluntzean Gorka Suaia eta Akatz-en reggae, dub eta rocksteadyak sorgindu zuen txosnagunea. Igandean bildots jana egin zen eguerdian, larunbatero festaren ostean indarrak berreskuratzeko, eta pilota partiduaren finala jokatu zen frontoian. Bukatua hala Deustuko Jaien lehen asteburua, egitekorik ezen faltako hurrengo astean ere.



Astlehenean tarte txiki bat hartu ostean, asteartean ekin zion berriz jaietako egitarauak Mihiluze txapelketarekin. Hitzekin jolasean hasi eta jolasean jarraitu zuten txapelketaren ostean Done Petri plazan bertso saioarekin. Afixa benetan bikaina Aner Peritz, Oihana Bartra, Maialen Lujanbio eta Ander Anakabek osatu zutena, azken hau Deusturen



ohorezko ordezkari; “gu pozez gainezka, Ander Hankagabe oholdta ganean ikusteaz” zioten Matxingorriko haren konpartsakideek. KORRIKArengatik ostegunetik astearte buruzuri batera mugitu bazen ere, ikusi zen bertso-saioa deustuarren egutegietan markatuta dagoen ekitaldia dela; KORRIKA dela eta, ostegunetan egin ohi den saioa asteartera mugitu bazen ere, aski bete ziren tranpaldo pareko aulkiak. Ostegunetan iritsi zen korrika Deustura ere: 18:30etan igaro zen auzora eta elkartasun giroak hartu zituen kaleak. Ramon y Cajalen hartu zuen lekukoa Jai Batzordeak, jaiak antolatzen tartetxo bat hartuta. Bira osoa eman zion Deusturi KORRIKAK, eta betiko lez, euskararen aldeko aldarriak batuta, giro bikaina sortu zen bertan. Ibilbidea jarraiki oso urrutira korrika egiteko asmorik izan ez zutenek, zaku patata lasterketa eta Mirua taldearen kontzertua izan zituzten txosnagunetan, egun biribilari amaiera emateko.

Asteburua berriz ere ekintzaz lepo etorri zen, Sare talde feministaren mobilizazioak eman zion hasiera ostiralari, suzko zezenak eta Distopia txarangak jarrai, eta Gaztetxean Juankar eta Jon Mirentzat

barkua bete herba

>> JAI HERRIKOIAK

elkartasun-gaua antolatu zen, gazteen elkartasuna helarazteko. Larunbatean eguerdian hasi zen egitaraua tomatadarekin, egun luze baterako indarrak hartzeko. Arratsaldean gaztetxoek Gora Bihotzak emanaldia izan zuten ikusgai Bihotz Alai taldearen eskutik, eta gauean bigarren Playback txapelketa bat egin zen, larunbat gauak berezko duen inspirazioak hauspotu zuena. Burutik taldearen trikitixa elektrifikatuaren soinuak hartu zuen lekuko musikala, bikain hartu ere; jendetza bildu zen txosnagunean, eta Brutality Sound Systemen emanaldiak lortu zuen erritmoari jarraitzea. Nostalgiko, ausart eta gaztetxeroek izan zuten emanaldi alternatiboa Deustuko Gaztetxean, bertsio gaua, hain zuzen ere; abesti ezagun askoak perspektiba berri batetik entzuteak badu bere xarma, eta are gehiago halako giro jatorrean.

Iritsi zen igandea eta dasta zitekeen jada jaien amaiera. Zapore gazi gozoa ahoan, eguerdian ospatu zen tortila-txapelketak lortu zuen bertaratu zirenen sabelak eta gogoak goxatzea. Haur eta gazteenek lasterketa izan zuten bitartean Botikazar parkean, helduek zartagin, labana eta suak zorrotzen zituzten bitartean. Lasai pasa zen arratsal-



dea Andoni Oilokioji kantari ezagunak bazterrak hankaz gora utzi zituen arte; abesti ezagunak birmoldatu eta doinu propioak ere eskaini zituen oholtzan. Oilokiegiren emanaldiaren ostean iritsi zen, azkenik, jaietako esateko momentua; Done Petri plazan jendetza elkartu zen, tomate maitatuari azken agurra emateko, haren erreketaurretik. Hartu zuen sua tomateak, eta ihes egin zuten airean haren errautsek, nora zijoazen ezin esan; bai ordea haren errautsetatik jaietako direla datorren urtean ere Deustuko Jaiak. Gora Deustuko Jaiak eta gora Deustu Herria!





Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean



ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



PATRI MUÑOZ

Script eta kulturzalea

Poesia liburuak meheak eta denboran zehar irakurtzekoak izaten dira. Ez dira egun batetik bestera irakurtzen uzten, ezta eseri eta ordutan jarraian irakurtzen egoten ere. Horrelakoa da Emilienne Malfatto idazlearen Deitora zaitzala Tigrisek (*Que sur toi se lamente le Tigre*) eleberria, itxuraz laburra eta azkar irakurtzekoa baina pausatzen utzi beharrekoa. Kapitulu laburrez osatutako 80 orrialde baino gutxiagoek irakurtzeko denbora eskatzen dute. Orrialde hauen denbora geldoa da. Poesiaren denbora.

Liburua gaur egungo Iraken kokatuta dago eta premisa simple bezain lazarria dauka. Gure protagonista landa gunean bizi da. Emakume ezkongabe bat da. Bere maitalea hil berri da bonben azpian. Emakumea haurdun dago. Bere patua argia da beraz. Heriotza. Alea jacta est.

Liburuak aurrera egin ahala premisa horren atzean izkututzen diren pertsonaia guztiak agertzen joango dira banan banan. Zein da pertsoanaia bakoitzak egoera zehatz horren aurrean duen jarrera baita gertakari hori ahalbideratzen duen errealitatean duen kokagunea eta rola? Bakoitzak bere arrazoiak eta azalpenak azalduko dizkigute herrialdearen egunerokotasunaren mapa gure begi aurrean zabalduz. Hildako maitalea, emakumea hilko duen neba nagusia, kontra egon arren anaiari aurre egingo ez duen neba gaztea, hiruren ama.... eta pertsonaia guzti hauen artean Tigris bera, Irak osoa zeharkatzen duen ibaia. Liburu osoa zeharkatzen duen beste pertsonaia bat.



**KATTALIN URRIZ ETA ELISE
GOMEZ**

Elorri bertso-eskolako kidea

Doinua: Orioko balea

Klaseak bukatu ta
Pstiral gauean
Primeran pasatuta
Txosnan dantzatzean
Ta gero esnatzean
Egoera txarrean
Jairik jai bizi gara
Mortxoko hilean

Bi urte itxaroten
Korrikan sartzeko
Aurtengo abestia
Ozen kantzatzeko
Pozez zorutzen geunden
Lekukoa eusteko
Momentu ona izan da
Euskara lantzeko

eidabe

ekimen kulturalak

www.eidabe.com

Jon Arrospide, 17 - 2. a - 15. dpto - Deustu



eskatu eskaini euskaraz

Zuk aukeratzen duzu

Badakizu aukeratzen duzun
hitzaren arabekoak izango
direla zure harremanak?



Euskadi, auzolana, bien común





Berbaizu
euskara elkartea

EGIN ZAITEZ BERBAIZUKIDE!

Berbaizu Euskara Elkarteko bazkide bazara PREST! aldizkaria helduko zaizu hilerro etxera.

Eskaneatu QR-a



eta bete formularioa!

Berbaizu euskara elkartea
Ramon y Cajal 42, behea
48014, Deustua

✉ berbaizuko@gmail.com

☎ 944471042